



The Curious Incident of the Dog in the Night-Time

Mark Haddon

Oso eleberri originala, adimentsua eta jostagarria da. Ingelesez “kristoren” maila ere izan gabe nahiko erraz irakurtzen da, hiztegian behin eta berriro kontsultatu beharrik gabe, eta liburuak irakurlea ustekabean harrapatzen du bere planteamendu berritzaileagatik eta batez ere bere originaltasunagatik.

Protagonista mutil autista bat dugu, matematiketarako eta abstrakzioarekin zerikusia duten beste zenbait ariketatarako dohain berezi bat daukana. Baina, mendekotasun psikikoa du, hau da,

besteen laguntza behar du eguneroko zereginetan eta bizitzako oinarritzko gauza guztietan aurrera egiteko. Beraz, mota horretako pertsonak izan ohi dituzten mugak ditu.

Liburuak protagonistak berak kontatzen du. Munduari buruz daukan ikuspegia liburuak narratzen digun berbera da, hortaz. Protagonista bera bilakatzen gaitu. Eta horrela, liburua irakurtzen dugun bitartean, mundua interpretatzen dugu hark berak interpretatzen duen bezala.

Ez da erraza autista baten buruaren barruan sartzea; hala eta guztiz ere, egileak hain ondo egiten du, ezen, benetan iristen baitzara pentsatzera liburu “autobiografikoa” ez ote den.

Bestalde, ikuspegi horrek zama emotibo handia dauka, eta batez ere, oso gizatiarra da. Zenbait gauza birplanteatzera bultzatzen zaitu eta, giza ikuspegi batetik begiratuta, pixka bat hobeak izaten ere laguntzen digulakoan nago.

Lagun batek esan dit liburu hau euskarara itzulita dagoela. Ez nekien. Hala balitz, albiste ona izango litzateke. Pentsatzen dudanez, itzultzaileari sortu zaion zailtasunik handiena ziur aski ez zen sintaxi mailakoa izango –zentzu horretan ez baita berez korapilatsuegia–, “tonu-mailakoa” baizik, hau da, liburuaren protagonista/narratzailearen tonuarekin asmatzea eta tonua ondo finkatzea izango zen zailena, ziurrenera.

Ahal baduzue, irakur ezazue, dela ingelesez dela euskaraz dela gaztelaniaz dela frantsesez... (liburu honek ezer gutxi galduko du hizkuntza batetik bestera pasatzerakoan).

Merezi du.